

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Aukera-leiho bat badago erdi irekita

IÑAKI ALTUNA > 9

NATUR ITSUTASUNA: DBHko ikasleek zailtasunak dituzte hegaztiak identifikatzeko > 10

2023ko abuztuaren 19a | XVII. urtea • 838. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



TXARO TOMASENA: GIBRALTARKO ITSASARTEA IGERIAN, 77 URTEREKIN

> 18 Jon URBE | FOKU



4



10


Udan areagotu egiten dira nabarmen migrazio hondamendiak 04

Unai Ortega: «Natur zientzien hezkuntzan eta didaktikan ahaztutako osagaia da alderdi emozionala» 10

Gertuko planak: Argiñetako nekropolia, hariztiaren zaintzapean 14

In fraganti: Txaro Tomasena, Gibraltarko itsasartea igerian egin du 77 urterekin 18

Juantxo Egañaren behatxulotik 23



14

SINADURAK:

- 03 **Gorka Elejabarrieta:** Irlandaz
- 08 **Saioa Aginako Lamarain:** Premia baizik
- 09 **Iñaki Altuna:** Aukera-leiho bat badago irekita
- 13 **Amaia Ballesteros**
- 16 **Leire Lareki eta Eneko Mendiluze:** Eneagrama
- 17 **Xabier Izaga Gonzalez:** Margu lili artean kaka mehe, tirano arrotzen ohiltzeko
- 21 **Miren Azkarate Badiola:** Gizakiak gizatasuna galdu du
- 21 **Amagoia Mujika Telleria:** Delirioa
- 22 **Olatz Arbelaitz Gallego:** Datu-zentroak: eguneroko bizitzako ohituren atzean dagoen azpiegitura

{ datorrena } **Gorka ELEJABARRIETA**

Irlandaz

Azken hamarkada luzeetan Sinn Feinek bi helburu politiko estrategiko nagusi izan ditu. Batetik, Irlandaren eta Erresuma Batuaren arteko gatazka politiko eta militarren konponbide elkarrizketatu eta negoziatua eta, bestetik, Irlanda osoaren independentzia eta batasuna. Gatazka politikoaren konponbidea egun bateko gertakizuna baino gehiago prozesu luzea izan da, oraindik ere aurrera doan prozesu luzea, eta besteak beste Irlandaren batasuna eskuratzeko mekanismo eta protokoloa zehaztu duena.

Gerry Adams eta Martin McGuinness izan dira, gatazkaren konponbidearen eta irlaren batasunaren aldarriak altxatuz, Sinn Fein eta Irlanda bera egoera berri eta itxaropentsu batera eraman dutenak. McGuinness 2017an zendu zen eta Sinn Feinek 2018an Mary Lou McDonald eta Michele O’Neil alderdiaren buru berri izendatu zituen. SFk lidergo trantsizio erdugarria egitea lortu zuen. Gerry eta Martin karisma handiko liderrak izan ziren, Irlandan ez ezik mundu zabalean aski ezagunak, eta barne mailan oso errespetatuak. Urte luzez mugimendu errepublikanoa gidatu zuten. Horrelako lidergoak ordezkatzeko oso prozesu zaila eta konplikatu da. Ez dut uste Rafael Correaren eta Lenin Morenoren arteko harremana oso ona izango denik, eta ez naiz ziur Pablo Iglesiasek berriz ere Yolanda Diaz aukeratuko zuela bere ordezkoko gisa. Bi adibide besterik ez dira, baina mundua eta historia oso gaizki atera diren adibidez besterik daude. Horretan ere errepublikanoak, eredu.

Azken urteetan Mary Louren eta Micheleren lidergoaren eskutik Sinn Feinek gorakada elektoral nabarmena egin du. Alderdi bozkatuena bilakatu da ipar zein hegoaldean. Betiko aldarri aldarrak berriak gehitu zaizkie eta Sinn Fein berri horrek babes handiagoa eskuratzeko lortu du. Brexitaren kontrako botoa eman zuen Irlandako iparraldearen jendartearen gehiengoak eta, aldiz, Brexitaren alde agertu ziren alderdi unionista guztiak. Jendarte eta alderdi arteko haustura horrek Brexitaren kontra agertu zen Sinn Fein indartu zuen. Euskal Herrian azken hilabeteetan horrenbesteko eztabaida piztu duen etxebizitza politiken inguruko debata Irlandako hegoaldeko agenda politikoan gai zen-

traletako bat izan da modu iraunkorrean azken urteetan. Eoin O’Broin da Sinn Feineko etxebizitza politika arduraduna. Bide batez etxebizitza inguruan idatzi duen “Home” liburua gomendatu nahi dizuet. Nire kintako euskal “gazte” militante politikoentzat pertsona ezaguna da Eoin, Euskal Herrian askotan egondakoa, “Matxinada” liburuaren idazlea besteak beste. Eoin eta Sinn Feinek etxebizitza politikaren inguruan luzatu duten proposamenak eta egiten ari diren lanek etengabeak jende asko Sinn Feinera hurbildu dute. Ez nuke esango hori Sinn Fein hegoaldean alderdi bozkatuena bilakatzeko arrazoi bakarra denik. Baina arrazoi garrantzitsua izan da, duda barik. Gurean ere antzeko zeozer gerta daitekeelakoan nago. Sinn Feinen gorakada elektoral horrek irlaren batasunaren aukera parez pare ireki du. Batasuna nola gauzatu Ostiral Santuko akordioak zehaztu zuen. Bi erreferendum: bat iparraldean eta bestea, hegoaldean. Bietan gehiengo lortzea beharrezkoa da batasuna eskuratzeko. 25 urte geroago zergatik ez da mekanismo hori erabili?

Mekanismoa aktibatzeke beharrezkoa da ipar zein hegoaldean hori egin nahi lukeen gobernu egotea. Orain arte ez da gertatu. Agian ez da sekula gertatuko. Inoiz gertatuko bada, orain izan daitekeela dirudi. Sinn Feinek gidaturiko gobernuak lortzen badira ipar eta

Azken urteetan Mary Louren eta Micheleren lidergoaren eskutik Sinn Feinek gorakada elektoral nabarmena egin du

hegoaldean, Irlandak botoa emango du. Duela egun gutxi Mary Lou McDonaldekin afaltzeko aukera izan nuen. Irlanda eta Euskal Herriaz aritu ginen bereziki. Sinn Feinen eta EH Bilduren arteko harremana eta berdintasun nabariak izan genituen hizpide. EH Bilduk antzeko bidea egin du azken urteetan eta nabarmena da egiten ari den gorakada elektoral. Aurrerantzean zer gertatuko den ez dago erabakita, baina gure solasaldiaren momentu batean eta Irlandaren aukerez ari ginela, zuekin konpartitu nahi dudana bat bota zidan Mary Louk. Euskal Herriak ere bere etorkizuna erabakiko du. Noiz? Erabakitze mekanismoa aktibatzea EH Bilduren esku dagoenean, Irlandan bezala. •



Ehunka pertsona desagertu ziren Greziako Peloponeso penintsularen hego-mendebaldean, ekainaren 14an, 700 migratzaile baino gehiago zeramatzan ontzi bat hondoratu ondoren. 34 pertsona desagertu ziren hilaren 20an Atlantikoan, Kanaria Handitik 185 kilometrora hegoaldera, eta beste 40, egun haietan Lampedusaren parean (Italiako hegoaldean) dozenaka migratzaile zeramatzan txalupa bat hondoratu zenean. Horrela hasi zen aurten-

ETORKINEN «UDA»

Urte aro honetan areagotu egiten dira nabarmen migrazio hondamendiak

 GIZA ESKUBIDEAK / EFE

Mundu erdiak udan oporretan nora joan pentsatzen duen arren, migratzaileek eta errefuxiatuek arriskuz betetako ibilaldiak egiteko probesten dute urteko sasoi hau; Mediterraneoko uretan itotzeko edo Afrikako basamortuetan egarriak eta goseak jota heriotza aurkitzeko. Hauek dira beraien «udako oporrak».

go uda Europatik gertuko itsasoetan, bertokoentzat opor garai oparoa dena.

Safa Msehli Migrazioen Nazioarteko Erakundeko (OIM) bozeramailearen ustez, aurten udan ez dira murriztuko Europa hegoalderako zeharkaldi arriskutsuak, azken hilabeteetako gorakada egonkorraren ondoren, baina bide batez ondorengoa nabarmendu du: «Giza bizitzak ez dira zenbakietara murriztu behar, eta beldur gara ez ote den hori gertatzen ari Mediterraneoan». OIMren arabera, aurten 2.000 migra-

BASAMORTUAN HILTZEN DIRENAK EZ DIRA ZENBATZEN

Atlantikotik Espainiarantz eta Mediterraneo erdialdetik Italiarantz doazen migrazio-bideetan, heriotzaren mamuak ez die atzera eginarazten Europara eramango dituen itsasorako irteeraren bila lehorreko ibilbide arriskutsuak egiten dituzten milaka migratzaile eta asilo-eskatzaileei, batez ere Saharaz hegoaldekoei. «Itxaropena» hitza barnean izan dezakeen bizi baten bila dabilta.

Mendebaldeko Mediterraneoan, Marokon eta Aljerian, edo Ceuta eta Melillako mugan, migrazio-fluxuari aurre egiteak itsasbide horiek suspertu ditu –batez ere, Afrikako Atlantikoko kostaldetik, Tunisiatik eta Libiatik

abiatzen direnak-. Erakundeek ohartarazi dutenez, benetako heriotza-kopuruak zenbaki ofizialak bikoiztu ditzake. Caminando Fronteras gobernuz kanpoko erakundearen arabera, 2.390 pertsona hil ziren 2022an Espainiarako bidean.

«Itsasoan hildakoez ari gara, baina basamortuan hiltzen direnak ez dira kontatzen. Agadezeko basamortuan, adibidez, Aljeriarantz irteten direnean, asko hil egiten dira. Lurperatu eta bertan uzten dituzte», azaldu du Eferi Frank Iyanga Langile Etorkinen Erakunde Demokratikoko (ODTI) idazkari nagusiak.

Agentziak jasotako migratzaileen testigantzen arabera, Mediterraneo mendebaldetik zeharkatzea ezinezkoa denez, ibilbide alternatiboa erdialdeko Mediterraneoetik igarotzen da, eta, horretarako, zenbait kasutan, Aljeriatik Tunisiara eta Libiara doan bide zehaztugabea, arriskuz betea, desegin behar dute.

Hassan Ammari Egoera Ahulean Dauden Migratzaileei Laguntzeko Elkarteko (ASMV) presidenteak azaldu duenez, bere gobernuz kanpoko erakundeak (GKEak Marokoko ekialdeko Uchda hirian du egoitza) gero eta zerbitzu handiagoa egiten die Marokoko



tzaile hil edo desagertu dira Mediterraneoan Europarako zeharkaldietan.

LIBIATIK ITALIARANTZ

Mediterraneo erdialdeko ibilbidea (Libiatik Italiarantz) munduko arriskutsuena da: «Urtero ehunka heriotza dokumentatzen ditugu bertan, eta egoera horri aurre egiteko oso ekintza zehatz gutxi ikusten ditugu», salatu du Sifa Mshelik.

Giorgia Meloni ultraeskuindarraren Italiako Gobernuak migrazio-larrialdi nazionalerako egoera ezarri du

uda osorako –migratzaileak lekualdatzeko eta aberriratzeko azkarragoak egiteko baliabideak bideratzeko– Parlamentutik pasatu behar izan gabe.

Italia udan etorritakoen gorakadaren beldur da: aurten momentuz 92.000tik gora izan dira, 2022 osoan iritsitakoak halako bi baino gehiago, baina oraindik ere oso urrun dago 2016ko zenbakietatik, 181.436 izan baitziren urte hartan. Melonik mugatu egin du erreskate-ontzi humanitarioen lana: operazio bakoitzaren ondoren (erreskatatutako migratzaileen ko-

Lampedusan, Kanariar irlatan eta erreskate itsasontzietan ateratako argazkiak.
AFP

purua edozein dela ere), por-tu bat esleitzen du berehala, eta, gainera, urrun egon ohi da.

Aita Mari Euskal Herriko itsasontziak, Itsas Salbamendu Humanitarioa GKEaren sarean lan egiten duenak, egun eta erdi eman behar izan zuen itsasoan ekainaren 18an erreskatatutako 172 pertsona lehorreratzeko

Otsailaren 26an Cutro herriko kostaldean (hegoaldean) itsasontzi bat hondoratu eta, gutxienez, 94 pertsona hil ondoren, Italiak delitu berri bat ezarri zuen, «etorkinen ezku-

tuko trafikoa eragindako heriotza eta lesioak», 30 urte arteko kartzela-zigorrekin


LIBIA ABIAPUNTU

OIMko bozeramailearen arabera, azkenaldian migratzaileen irteera gehiago izaten ari dira Libia ekialdetik. Giza eskubideen urraketak etengabe jasaten dituzten milaka migratzaile dituen herrialde «ez seguru» gisa salatu dute Libia. Hala ere, etengabe ari da jasotzen Italiatik bueltan itzultzen dituzten etorkinak, «migratio-fluxuari eusteko» akordio berriaren barruan.

familiei; Tunisiako bidean migratzeko saiakeran seme-alabak desagertu direla salatzen dutenei, hain zuzen.

Saharaz hegoaldeko herrialdekoak bi ibilbide nagusiren bidez iristen dira Marokora: Mauritaniatik, Mendebaldeko Saharako muga zeharkatuta, edo Aljeriako mugatik, iparraldetik.

Gatazkan edo bereziki pobretuta dauden herrialdeetatik datoz, hala nola Mali, Burkina Faso, Boli Kosta, Senegal, Kamerun edo Sudanetik. Bertara iristeko, kasu askotan Saharako basamortua zeharkatu behar izaten dute. Bertan, Migrazioetarako Nazioarteko



Basamortua zeharkatu ondoren Libiara iritsitako migratzaileak.
MAHMUD TURKIA | AFP

Erakundeak (OIM) 5.719 hildako zenbatu ditu 2014tik. Egia esan, zenbakiak altuagoak dira, baina inork ez ditu datu zehatzak jasotzen.

Marokok Mediterraneoan kostaldean eta Ceuta eta Melillako mugaren inguruetan ezarri duen kontrol zorrotzagoaren ondorioz (zehazki, 2022. urteko ekainaren 24ko tragediaren ondoren, orduan 23 migratzaile hil baitziren Melillako hesia gainditzeko 2.000 bat pertsonaren saiakeran), Espainiako Kanariar

NBEk Libian duen misio be-reziak (UNSMIL) kezka agertu du, antolatutako krimenaren aurkako borrokaren aitzakia-pean, migratzaileak eta asilo-eskatzaileak (adingabeak, tar-tean) arbitrarioki eta masiboki atxilotzen dituztelako herrial-de horretan.

Aurten, gutxienez, 7.477 per-sona atzeman dituzte – horie-tatik 161, haurrak –. Libiak, Tu-nisiarekin batera, irteeren % 94 inguru biltzen ditu Medite-r-raneo erdialdeko bidean.

Tunisiako agintariak Saha-raz hegoaldeko herritarren aurka abiatutako kanpaina arrazistak itsaso bidezko ihe-saldi saioak areagotu ditu, Es-kubide Ekonomiko eta Sozia-len aldeko Tunisiako Foroaren (FTDES) arabera.

Tunisiako kostazainek 14.000 migratzaile atzeman zituzten aurtengo lehen hiru hilabeteetan; gehienak, Saha-raz hegoaldekoak.

Tunisian errefuxiatuen bi-daia arriskutsuak areagotu egin dira azken hilabeteetan eta Libiatik egindakoak baino

Mediterraneo erdialdeko ibilbidea (Libiatik Italiarantz) munduko arriskutsuena da: «Urtero ehunka heriotza dokumentatzen ditugu bertan, eta ez da ezer egiten ari»

Tunisiatik egindako irteerak biderkatu egin dira lehen sei hilabeteetan, Europako Batasunak Tunisiako autokraziari jendarme lanak egiteko ordaintzen dion arren



gehiago izan dira aurtengo lehen sei hilabeteetan.

GREZIAN ERREFUXIATUEK GORA

Uda iristearekin batera, Gre-zian errefuxiatu eta migratzaile kopuruak gora egin du Evros ibaian, Turkiarekiko muga naturalean, baita kostal-deko zaindarien atzemandako migratzailez betetako ontzi prekarioetan ere.

Azken lau urteetan, Greziari behin eta berriz leporatu diote legez kanpoko migratzaileak Turkiara «beroan itzultzea».

Migrazio Ministerioaren arabera, 2022an migratzaile eta errefuxiatuen etorrerak % 96 igo ziren aurreko urteare-kin alderatuta: 17.112, guztira.

Turkiako kostazainek jarduna indartu dute bertako hondartzetatik Greziako uhartee-tarantz abiatzen diren migra-tzaileen ontziak geldiarazteko –normalean, txalupa pneuma-tikoak–. Ekainaren 25 eta 26an, kostazainek 215 migratzaile atzeman zituzten –horien ar-tean 65, Italiara bidean belaon-tzian zihoazenak–. Ankarako

Uharteetarako bide atlantikoak gorakada nabarmena izan du.

Kanariar Uharteetara iristen dira Mauritaniatik edo Senegaletik datozen paterak ere, 1.500 kilometroko ibilbide luzea egin ondoren. Estatu espainoleko Barne Ministerioaren arabera, urtarriletik ekainera 5.914 migratzaile iritsi ziren Kanariar Uharteetara, eta 8.000 euro balio dezake bidaia bakoitzak.

Afrikako mendebaldeko mutur horretan mugaren kontrola zorroztu izanak Tunisia edo Libiarako lurereko bidea egitera bultzatu ditu asko, Italiarantz pateretan ontziratzeko.

Wassim arrantzale tunisiarrak Efe-ri adierazi dionez, aurten aurreko urteetan baino



migratzaile-ontzi gehiago topatu ditu lanean; Tunisiako Guardia Nazionalari deitu ohi dio erreskatatzeko. Kasu batzuetan, gorpuak baino ez.

«Ez dago konponbiderik: irtenbide bakarra itsasotik ateratzea da», dio Tunisiako hegoaldeko Sfaxeko arrantzaleen portuan –Ipar Afrikako herrialdeko bigarren hiri handiena da, Europarako migrazio-ibilbidearen puntu nagusietakoa bihurtu da eta zenbaitetan Libia ere gainditzen du–.

«Pobreziatik etorri ziren, eta paradisura doazela pentsatzen dute», esanez laburbildu du eguneroko bere pentsamendua –batez ere gaueko lanaldietan, non irteera eta hondoratze horiek gertatzen diren–. Mafiak antolatu egin direla susmo irmoa du.

Handik metro gutxira, beste arrantzale batek zehaztu du tunisiarrek zeharkaldiaren segurtasunari begira ordaintzen dutena 2.000

Barne Ministerioak argitaratutako estatistiken arabera, agintariak 12.000-13.000 errefuxiatu eta etorkin atxilotzen dituzte hilero, eta ekaineko lehen bi asteetan 7.300 ere izan ziren.

Libanon 2019ko amaieran krisi ekonomiko larria hasi zenean, legez kanpoko irteeren kopuruak gora egin du, batez ere kostaldeko Tripoli hirian (iparralde), bertatik abiatzen baitira libanoarrak eta siriar errefuxiatuak dituzten itsasontziak.

Egipto aspaldi dago krisi ekonomikoan, baina Errusiak Ukrainan egindako gerrak larriagotu egin du, munduko gari-inportatzaile nagusietakoa baita. Horren ondorioz, gazte gehiagok Libiara joan behar izan dute Mediterraneotik zehar Italiarako edo Greziarako bidea hartzeko.

MENDEBALDEKO BIDEA

Aljerian, mendebaldeko bideetik irteten diren gabarrak, bestalde, Espainian lehorreratzen dira: 2022an %50eko jaitsiera



Mediterraneoko dramaren irudiak. AFP

izan zen aurreko aldiekin aldearata.

Aljeria ere bada Saharaz hegoaldeko biztanleentzako igarobidea. Batez ere Saharako

basamortu basatian milaka migratzaile kanporatzeagatik gogor kritikatu izan da. Basamortua ere migrazio-zeharkaldi arriskutsua da, non ia ez da-

goen hildakoen edo desagertuen inguruko daturik.

Marokon Mediterraneoko kostaldean kontrola indartu dela nabarmena da, eta horrek Espainiara iristeko beste bide batzuk hartzerantz bultzatzen ditu etorkinak: Kanariar Uhartetarako ibilbide atlantikoa, esaterako, arriskutsuagoa.

Marokoko Barne Ministerioaren arabera, 2022an herrialdeko agintariak 12.478 pertsona erreskatatu zituzten Mediterraneoko eta Atlantikoko uretatik –aurreko urtean 14.236 izan ziren–. 2023ko lehen bost hilabeteetan 3.150i lagundu zieten.

Barne Ministerioak dio 2022an 70.781 pertsona Espainiara lehorretik edo itsasotik irtetea eragotzi zutela, eta zifra hori 63.121ekoa izan zela aurreko urtean.

Caminando Fronteras eta etorkinei laguntzen diharduten beste erakunde batzuek Frontexen politika salatu dute, haien iritsiera eragoztera bideratua, larrialdietan lagundu beharrean.

Basamortutik bizirik iristen diren irudiak, sufrimenduaren ispilu, izugarriak dira. MAHMUD TURKIA | AFP

eta 2.500 euro artekoa dela, 40 pertsonako txalupa egonkorrago baten truke, eta Saharaz hegoaldekoek ordaintzen dutena, aldiz, 1.300 euro ingurukoa dela, ehunka pertsonarentzako ontzi prekarioetan pilotzeagatik.

Bolikostar gazte batek bizkarra emanda baino ez du hitz egin nahi kameraren aurrean, eta portu horretan lana aurkitzea lortu duela dio. Horren lekuko dira moilara itzultzen



ikusten dituen Saharaz hegoaldeko ehunka pertsonak. Herrikide asko; izan ere, Boli Kostakoa da aurten ibilbide horretatik Italiara iritsi diren 60.000 migratzaileen artean nazionalitate nagusia (%14 inguru).

OIMk Mediterraneoko bidea zeharkatzeko 103.510 saiakera jaso ditu (mendebaldekoa, erdialdekoa eta ekialdekoa); 1.800 hildako baino gehiago eta ehunka desagertu izan dira, eta erritmo horretan 2023a izango da urterik hilgarriena.

«Denek dituzte arrazoiak Mediterranea zeharkatzeko, ezin diot inori errua bota. Kondenatu, nor? », dio Tunisian lana lortu duen bolikostar gazte honek, aberkide asko abiatzen eta hiltzen ikusi dituenak.



Saioa Aginako Lamarain
Psikoterapeuta

Premia baizik

noiz galdetu al diozu zeure buruari zergatik diren hain garrantzitsuak oporrak zure osasun mentalerako? Gaur egungo gizartean, non lanak eta erantzukizunek gure bizitzaren zati handi bat hartzen duten, denbora librea hartzeak luxua dirudi, edo, are gehiago, sakrifizioa.

Asteburuak, zalantzarik gabe, plazerezko salbuespenak badira ere, bost eguneko ahalegin fisiko edo mentalaren ondoren, ezin dira opor on batzuekin alderatu. Oporrak gazteleraz, latinezko “*vacans*” hitzetik eratorria da (*vacare* aditzaren partizipioa: “libre egon”). Hau da, horrela sortu ziren Antzinako Erroman). Baina pribilegio izateari utzi zioten duela denbora gutxi.

XIX. mendean, industria iraultzarekin, aurretik klase aberatsen pribilegioa izan ziren oporrak langileak “dastatzen” hasi ziren: pertsonentzat atsedenaaldiak ezartzeaz gain, trenbideko bidaiak ere eskuragarriago bihurtu ziren eta ondorioz joan-etorriak ere bai. Izan ere, gaur egungo oporren kontzeptioak beste leku batera bidaiatzea dakar. Horrela, oporrek, atsedena hartzeko eta ondo pasatzeko unea izateaz gain, berebiziko garrantzia dute gure ongizate mental eta emozionalan.

Atsedena hartzea funtsezkoa da. Ezin da etengabe estrespean eta presaka bizi, gure gorputza eta burua ez baitaude prestatuta luzaroan aktibazio-maila altuan bizitzeko. Horrek higitu egiten gaitu. Hala eta guztiz ere, pertsona batzuek, oporretan, erantzukizunak metatzen jarraitzen dute, gozatzen ez duten jardueretan parte hartuz. Ez dira gai bete-beharretik deskonektatzeko,

eta, horrela, igarotzen dute atsedenerako duten denbora.

Oporrek hobeto sentiarazteko duten zeregina betetzeko lehenengo gauza espero dugunaren zerranda luzea ez egitea da. Hau da, dena planifikatzen saiatzen gara inprobisaziorako tarterik utzi gabe, eta horrek edozein ezustekok gatazka eragitea suposatzen du. Esan genezake deskonektatzeko egin behar dugun lehenengo gauza dela jarduerarik ez egitea horretarako batere gogorik ez dugunean. Oporretan erantzukizunen eta errutinaren atsedena hartzea funtsezkoa da metatutako estresa jaisteko eta gure burua eta gorputza erlaxatzeko.

Hona hemen adibide batzuk: leku berriak esploratzea, maite dugunekin kalitatezko tarteak igarotzea edo zaletasun batean aritzea. Esperientzia atsegingarri eta emozionalki positibo horiek ongizate eta zoriontasun sentazioa sustatzen duten endorfinak eta neurotransmisoreak askatzen laguntzen dute.

Gure bizimodua eta lana sakon birformulatzeko unea da. Konturatu behar dugu batzuetan denbora galtzea irabaztea dela, energiak kargatzea, eta nahasmenaren artean lasaitasuna aurkitzea dela. Oporrak hartzeak berekin dakar geure buruaz gozatzeko ikastea, eta hori bidaiara atsegingarri bihurtzeko.

Gogoratzen al duzu mugikorrari begira egon ez zaren egunen bat? Noiz egin zenuen azkeneko hain gustuko duzun jarduerara hori? Eguneroko arazoetatik deskonektatzea ez da luxua, premia baizik. •



Atsedena hartzea funtsezkoa da pertsona guztientzat. GETTY

{ asteari zeharka begira } Iñaki ALTUNA

Aukera-leiho bat badago erdi irekita

Maiatzeko zein uztaileko hauteskunde ondoko mugimenduak bizkor- tu egin dira aste honetan erakundeen eraketa aldera. Nafarroan, Maria Chivite izendatu dute berriro ere lehendakari. Bigarren agintaldia du aurretik, Zurekin Nafarroa eta Geroa Bai indarrekin egindako akordioari eta EH Bilduren ordezkarien absentsioari esker.

Madrilgo Kongresuan, berriz, urrats esanguratsua egin dute bertako mahaiaren osaketarekin. Pedro Sanchez aurreko legealdian akordioak lortu zituen indarrekin adostasunera iritsi da, baita Junts Puigdemonten alderdiarekin ere. Gertaera esanguratsua, esan bezala, Junts-en beharra baitu PSOEko buruak berriro ere Espainiako Gobernuko presidente izateko. Bestela, beste behin hauteskundeak egin behar- ko dituzte; esanak esan, Alberto Nuñez Feijoo PPko hautagaiak ez baitu aukerarik La Moncloara iristeko beharrezkoa den gehiengoa josteko, are gutxiago, joan den ostegunean, Kongresuko bozketan, Vox-ekin ere harremana okertu dela ikusi ostean. Ultraeskuinekoek beren hautagaiari, eta ez PPkoari, eman diote boza Kongresuaren mahairako, nonbait hauteskunde ostean eremu horretan sortu den krisiari aurre egiteko nortasun propioa erakutsi nahian.

Halako gehiengo bat osatzeko, espekulazio bakarra izan da Espainiako hedabideetan aurreko asteetan: Vox gobernuan ez sartzea, PPk berak bakarrik bere gain hartzea gobernua eta, horrela, EAJren bozak erakartzea. Espekulazio hutsa, jelkideek beraiek segituan argitu zuten. Ez dela halakorik gertatutako berretsi zuten, hainbatek halakorik gerta zitekeela uste izanak zer pentsatua eman beharko balieke ere Sabin Etxean. EAJ nola ikusia den aztertze-ko datu bat da.

Negoziazioz, estutasunez eta txilinbuel- taz beteriko asteak, egunak, baita orduak ere, dira honako hauek. Gauza batzuk lotzeko eta lortzeko tenorea. Oraintxe agerian ikusten ari garena txikirako tantoak dira neurri handi batean, partida ez baita aste honetan hasi ez eta amaituko ere.

Urduritasunaren uneak ere badira. Ez da batere ohi-koa, aste honetan bertan gertatu den bezala, UPNk atzera egitea. Barcinaren estiloa gogoratu besterik ez da egin behar. Iruñeko oraingo alkateak, ordea, hala egin du Gurutze Plazako parking proiektuan. Protes- tek atzera egitera behartu dute. Ez dakigu zehatz- mehatz haien burua indar aurrerazaleztat duten al- derdiek Iruñeko Udalean maiatzaren ondotik eragin ez zuten aldaketa eragiteko nahikoa adorerik izango

Negoziazioz, estutasunez eta txilinbuel- taz beteriko asteak, egunak eta orduak dira, baina partida ez da aste honetan hasi ez eta amaituko ere

duten, baina bistan da Ibarrolak aukera hori baduela buruan bueltaka, eta horregatik indargabetu nahi izango duela bere kontrako polemika oro, polemika horiek –parkingena, urrutira joan gabe– PSNri urratsa egitea erraztuko lioketelako. Akaso PSNk ez du behar beste pentsatu, baina UPNk, bai: herritarrak ez lirate- ke harrituko.

Perspektibaren beharra dago, bai atzera begiratzeko –nondik gatoz– bai aurrera begira sor daitezkeen au- kerak aztertze-ko –nora goazen edo, hobeto esanda, nora iritsi gaitzkeen–, txikira zein handira. Gabezi- az eta kontraesanez beterikoa izanda ere, gaur egun au- kera-leiho bat badago erdi irekita. Erdi itxita, esango dute pesimistek. •

«Natur zientzien hezkuntzan eta didaktikan ahaztutako osagaia da alderdi emozionala»

DBHko ikasleek zailtasunak dituzte hegaztiak identifikatzeko. Ondorio hori jarri du mahai gainean UPV/EHUK egindako ikerketa batek. Urdaibai Bird Centerren laguntza izan du lana burutzeko, eta beste galdera bati ere erantzun nahi izan dio: zer/nolako eraginkortasuna daukate egun bateko ingurumen hezkuntzako proposamenek?

UPV/EHUKo Matematika, Zientzia Esperimental eta Gizarte Zientzien Didaktika sailko ikertzaileak aritu dira lanean, tartean Unai Ortega.

DBHko ikasleek zailtasunak dituzte hegaztiak identifikatzeko. Horixe zen ikerketaren ondorio nagusia. Zer gertatzen ari da?

Ezezagutza. Hitz batean esanda, horixe gertatzen ari da. Landareak eta animaliak zerrrendatzeko orduan ingurukoak, gertukoak, oso gutxi ezagutzen ditugu. Gertukoa ez dugu ezagutzen eta askotan gehiago ezagutzen ditugu espezie exotikoak, arrotzak edo kanpokoak direnak. Horien inguruko informazioa edo inputak toki guztietatik jasotzen ditugu. Lehen, informazio hori gertutik jasotzen genuen,

UNAI ORTEGA LASUEN

LEHEN HEZKUNTZA ETA GIZARTE HEZKUNTZAKO IRAKASLEA

«Maite dena bakarrik babesten da.

Ezagutzen dena bakarrik maite da».

Cousteauren hitzek gaurkotasun betea

daukate. Krisi klimatiko larri baten erdian

gaude eta natur itsutasuna gero eta

nabarmenagoa da. DBHko ikasleek ez

dituzte hegaztiak ezagutzen.

Amagoia MUJKA TELLERIA



baserritik, etxetik, aurreko belaunaldietatik, esperientzietatik... eta gaur egun telebistatik edo Internetik jasotzen dugu informazioa eta horietan nagusi den kultura ereduaren iristen zaigu.

Ezezagutza hori, natur itsutasun hori, gertatzen ari dela nabarmentzen ari da azken urteotan. Diagnosi zehatzagoa egiten saiatu zarete.

Ezezagutza hori dokumentatuta dago munduko hainbat tokitan eta gu saiatu gara gure egoera zenbaterainokoa den jasotzen. Hegaztiarena Urdaibai Bird Centerrekin batera egindako ikerketa bat da eta helburua zen, era berean, ingurumen hezkuntza programen eraginkortasuna ebaluatzea.

Ez genituen neurtu nahi bakarrik hegaztien inguruko identifikazioa eta ezagutza, hegazti migrazioei buruzkoa, biodibertsitatearen inguruko jarraitzaileak, biosfera erreserbaren inguruko ezagutza...

Lan honetan horretan arakatu dugu galdetegi baten bitartez eta Bird Centerri esker lortu dugu DBHko ikasleengana iristea. 900 ikasle baino gehiagoko lagina bildu dugu. Galdeketa horien bitartez neurtu dugu zer nolako inpaktua izan dezakeen horrelako egun bete ingurumen hezkuntzako programa batek. Hori ohiko esperientzia bat da ikastetxe gehienetan; denok egin izan ditugu landa irteerak, bisitak.

Zein izan da ondorioa?



bizi diren eta landa eremutik datozen ikasleek hobeto ezagutzen dute tokiko biodibertsitatea».

Busturialdeko eskualdeko ikastetxe batzuen kasua da. Gure laginean pisu txikia zuten, baina ikusitakoa esanguratsua da. Ikastetxe txiki horietan edukiak landu izan dituzte urteetan, hainbat proiekturen bitartez, eta horien ardatzak hegaztiak izan dira, Bird Centerrekin elkarlanean. Curriculumeko hainbat alderdi jorrazteko garatu dituzte hezkuntza proiektu horiek; ingurumen zientziak, euskara, literatura... edota lehen hezkuntzako beste eremu batzuk. Gure ikerketan igarri dugu ikastetxe horietan ezagutza eta jarrerak osoagoak zirela. Gai ziren askoz ere hegazti gehiago identifikatzeko, gai ziren migrazioen arrazoiak egokiago azaltzeko eta kontserbazioarekiko jarraiek ere bestelakoak ziren, beste kasu batzuetan baino nabarmen kontzientzia handiagoarekin.

Motibazioan asmatzea da gako.

Bai. Natur zientzien hezkuntzan eta didaktikan ahaztutako osagaia da alderdi emozional hori, motibazioa deitu izan duguna. Ikerketak erakusten du atxikimendu emozional hori toki askotatik etor daitekeela; estrategia didaktikoa, eskolak antolatze modua, edukiak jorrazteko modua, irakaslearen izaera... Finean, hor dago ardatza, hor dago osagai klabe bat.

Noski, badira beste osagai batzuk. Denok bizi izan dugu hezkuntza, denok dugu geure esperientzia; erdi txantxetan esaten dugunez, denok daukagunez ipurdia, denok daukagu

«Gure gizartean ikusten dugun arazo nagusietakoa da gure burua sistema naturaletatik kanpo ikusten dugula. Sistema naturalak oso konplexuak dira eta gu horien parte gara, nahitaez»

iritzi bat edo ideia bat hezkuntzaz. Hori ere bada beste arazo bat. Baina ingurumen zientzien irakaskuntzarako badira kontuan izan beharreko aldagai batzuk: jorratu beharreko ideia nagusiak argi izatea, edukiak maila kognitibora eta aurreko ezagutzara moldatzea, ikasleen interesak eta aurreideiak aintzat hartzea... Finean, zientzia irakastea zientzia eginez.

Bizi dugun krisi klimatiko honetan, garrantzitsua da zaindu beharreko hori ezagutzea eta maitatzea, ezta?

Bai, hori da abiapuntua. Gure gizartean ikusten dugun arazo nagusietakoa da gure burua sistema naturaletatik kanpo ikusten dugula. Horrenbeste aldatu gara, horrenbeste isolatu gara eta ustez horren independente bihurtu gara, non ez

dugun ikusten dependentzia hori, harreman edo lotura hori. Eta horrek eramaten gaitu, besteak beste, pentsatzera teknologiak konponduko dituela gure arazoak edo asmatuko dugula zeozer. Hori ez da horrela.

Sistema naturalak oso konplexuak dira eta gu horien parte gara, nahitaez. Eta joko horren arau edo lege oinarrikoena muga ideia da. Muga biofisikoak dituen sistema batean, mundu batean, bizi gara eta gu ere muga horien barnean gaude. Hazkuntza mugagabe oinarritutako gure sistema sozioekonomikoa eta muga biofisikoak dituen sistema talka egiten ari dira: une horretan gaude. Ulertu behar dugu muga horiek ezin direla gainditu. Alegia, hazkuntza mugagabeak amaitu egin behar du.



Bisitariak Urdaibai Bird Centerren, behatokitik inguruari begira. Aritz LOIOLA | FOKU

Ikusi dugu egun bateko ingurumen hezkuntzako programa horien inpaktua oso mugatua dela, baldin eta hori ez bada-tor lagunduta ikastetxeko curriculumean sartuta dagoen bestelako lanketa batekin.

Aldagai emozionalak jarri ditugu mahai gainean ikerketak.

Jacques Cousteauk esaten zuen bezala, «maite dena bakarrik babesten da. Ezagutzen dena bakarrik maite da». Edozer zaintzeko, kasu honetan biodibertsitatea kontserbatzeko, oinarrikoa da lehendabizi ezagutzea eta ondoren lotura emozional bat lantzea.

Ikerketan hau nabarmendu duzue: «Urdaibaiko Biosferaren Erreserban edo inguruan

Aurreko belaunaldiek lotura estuagoa zuten inguratzen zituen naturarekin.

Gure aurrekoek garbi zuten dependentzia hori. Kontziente ziren eta dira, ezagutza hori hor dagoelako oraindik, muga biofisikoez eta horiekiko menpekotasunaz. Gauza bat da kontziente izatea, eta beste bat, ekintzarako jarrera hartzea, zerbait aldatzea. Egungo paradigmaman garbi dago zertarako balio duen sistemak mugak dituela ulertzeak; gakoak da ulertzea nor zaren zu, zein den zure lekua munduan. Finean, ulertzea gure gizarteak zein paper jokatzeko duen sistema honetan, ulertzea bizitza biofisikoak mugak eta arauak dituela eta zenbait jokabide horietan eragina dutela.

Naturatik urrunago bizitzearen ondorioa izango da akaso deskonexio hori.

Bai, dokumentatuta dago naturarekin kontaktu fisikoa galtzeak eraman gaituela ezagutza egoera honetara. Esperientziaren galera deitzen zaion fenomeno da. Ingurune naturaletik aldendu egin gara eta harreman hori ez dugu horren garbi.

Horrekin batera bada beste faktore garrantzitsu bat: faktore soziala edo kulturala. Belaunaldien arteko kontaktua galdu egin da. Naturarekin lotutako ezagutza belaunaldiz belaunaldi transmititu izan da etxeetan. Eta lehen ohikoa zen etxe berean hiru eta lau belaunaldi elkarrekin bizitzea. Hori aldatu egin da eta ezagutzaren transmisioa eten egin da. Eta hemen berriz sartzen da aldagai emozionala. Aitona-amonek erakutsitakoak berezko balioa dauka; akaso ez du erabilpenik, baina pisu emozional handia du eta betiko geratzen da.

INGURUMEN HEZKUNTZAKO PROGRAMA UGARI EGON ARREN, ALFABETATZEAK EZ DU GORA EGIN

DBHko ikasleek hegaztien inguruko zer ezagutza duten eta kontserbazioaren inguruan zer jarrera duten. Horixe izan dute ikertzeko gaia UPV/EHUko Matematika, Zientzia Esperimental eta Gizarte Zientzien Didaktika saileko ikertzaileek. Ondorioak argigarriak izan dira, esperotakoak seguruen: oro har, ikasleek zailtasunak dituzte hegaztiak identifikatzeko orduan eta hegazti migrazioari buruz duten ezagutza ere eskasa da. Ingurumenarekiko jarrerari dagokionez, jarrera egokia erakutsi arren, askok uste dute kontserbazio ahaleginak gehiegizkoak direla eta garapen ekonomikorako oztopo direla.

Ikertzaileek nabarmendu dutenez, Mendebaldeko jendarteetan oso garrantzitsua da natura eta ingurumena nola ulertzen diren, haien inguruko ezagutzak eragina izan baitezake ingurumenarekiko jarreretan. Gauza jakina da ezagutzen dena errazago maite eta zaintzen

dela. Hartara, ingurumen hezkuntza funtsezko tresna da jendearen kontzientziarioa handitzeko. Bide horretan, askotariko programak bultzatzen dira ingurune formaletan eta ez-formaletan.

Urdaibai Bird Center Urdaibaiko Biosferaren Erreserban dago, hegazti migratzaileen behaketa eta kontserbaziorako beharrezkoak diren habitat ugari ditu eta toki oso aproposa da ingurumen hezkuntzako programak garatzeko. Ondorioz, urtean zehar bisitari asko jasotzen ditu zentroak; asko, eskoletako ikasleak. «Inguruneetan biodibertsitatea gazteei hurbiltzeko programak urte askotan egin badira ere, orain arte ez da ebaluatu zer eraginkortasun duten», zehaztu dute ikertzaileek.

Hartara, Urdaibai Bird Centerren egun bateko txangoa egiten duten 908 ikasleri galdetegiak helarazi dizkiete, bertan ikusi eta ikasitakoak zenbateraino barneratu dituzten ebaluatzeko. Biosferaren erreserbari

eta padurei buruz zituzten pertzepzioak, biodibertsitatearekiko interesa, hegazti espezieak identifikatzeko trebetasuna, hegaztien migrazioari buruzko ezagutza eta kontserbaziorako jarrera neurtzen saiatu dira DBHko ikasleei idatziz egindako galdeketa horietan.

Ikertzaileek ikusi dute DBHko ikasleek ezagutza urria dutela biosfera erreserben, paduren eta hegazti migrazioaren inguruan eta, batez ere, hegaztiak identifikatzeko garaian. Bestalde, ingurumenarekiko jarrerarekin lotutako puntuazio altuak izan badituzte ere, ikasle askok uste dute inguruneok kontserbatzeko ahaleginak gehiegizkoak direla eta garapen ekonomikoa oztopatzen dutela.


Ikerketak ondorioztatu du egun bakar bateko programek ez dutela eraginik ingurumen hezkuntzan. «Programa horiek epe motzean ezagutza eta jarrerak sustatzeko baliagarriak badira ere, eraginkortasun mugatua dute». Ikertzaileek diotenez, egokia izan daiteke Urdaibai Bird Centerren ingurumen hezkuntza programa egokitzea testuinguru formaletan txertatzeko, «jarduera praktikoen bidez edo proiektuetan oinarrituz». Emaizak sistematikoki ebaluatzea ere iradoki dute ikertzaileek.

Azkenik, ingurumen alfabetatzean atxikimendu emozionalak duen garrantzia nabarmendu du ikerketak. «Nahitazko baldintza da sentitzea zaindu beharreko hori zaintzea merezi duela», nabarmendu dute. Ingurumen hezkuntzako programak ugariak izan arren eta ikasle askok horietan parte hartu arren, ingurumen alfabetatzeak ez du gora egin. Aitzitik, dokumentatuta dago alfabetatze hori gero eta eskasagoa dela.



Urdaibai Bird Centerreko hegaztien inguruko informazio panelak. Aritz LOIOLA| FOKU

LUR AZPIKO ABENTURAK



iRRITZIA:



Amaia
BALLESTEROS

{ gertuko planak }



Bizkaia / Elorrio

Argiñetako nekropolia, hariztiaren zaintzapean

Nerea GOTI

Elorrioko hirigunetik gertu, harizti eder batek inguratzen du San Adriango basiliza, eta ondo-ondoan, Argiñetako nekropolia dago, harrizko hilobi multzo batez osatua. Dorretxeak, jauregiak... bisitatzeko moduko ondare historiko handia dauka Elorriok. Argiñetako nekropolia elementu nagusietakoa da, leku berezia, bere balio historikoagatik, inguruneagatik eta bien eraginez bertan arnasten den atmosferagatik.

Hogei hilobi daude nekropolian eta bost hilarri, lau borobil eta triangelu formako bat. Kanpoan ikus daitezkeen elementuez gain, multzoko beste ale batzuk basilizaren barruan daude. Harrizko sarkofago handi bat da, esaterako, basilizako aldarearen elementu zentrala. XVI. mendean eraiki zuten gaur egungoa, aurretik zaharrago bat egon zen tokian bertan. Zaharberitze batzuk izan ditu ondoren. Ez da eraikin handia, eta ondo zainduta dago. Bisitatzeko modukoa da. Arreta ematen dute, aldarearen albo bietara, inskripzioak dituzten hilobiek eta hilarriek, eta goiko aldeko egurrezko koru argiztatuak.

VI. eta IX. mende arteko sarkofagoen erreproduzioak dira nekropolian ikus daitezkeenak; horietako bat bikoitza da. Kareharriz egina daude, eta berez, kasu guztietan, Argiñeta ez da jatorrizkoen kokapen originala. Baina nor lurperatu zuten han? Zer dakigu hilobi horien esanahiaz?

Garazi Agreda Elorrioko Turismo Bulegoko langileak lagundu dio GAUR8ri parajerainoko bisitan. Egun eguzkitsua da eta bero handia dago, basilizaren inguruko hariztiaren magalean sartu arte. Arbol handien gerizpera helduta, bestelakoa da hozberoa, freskotasun handia sumatzen da, zuhaizpean zerua ez da ia ikusten. Garbi dago ingurua, eta oso jende gutxi ikusi dugu: herritar bakarren bat paseoan, eta bertako bikote bat kanpoko lagunei Argiñetako parajea erakusten. Basiliza itxita dago, baina bisitatzeko aukera izan du GAUR8k, turismo gidariari esker. Auskalo zenbat urte duen burdinazko



jakinbharrekoak

Aste Santuan eta udan zehar bisita gidatu publikoak eta pribatuak (urte osoan) eskaintzen ditu Elorrioko Turismo Bulegoak. Herriko ibilbideez gain,

Argiñetako nekropoli eta San Adriango basilizarako bisita gidatuak erreserbatu daitezke herriko bulegoan bertan, 946 820 164 eta 688 776 270

telefono zenbakietan edo turismo@elorrio.eus helbide elektronikoan. Bisita audiogiden aukera ere bada, hainbat elementu historiko ezagutzeko.

giltza handi bat bat sartu du sarrailan. Giltza hori «arreta handiz» gordetzen dute, kontatu duenez.

Hilobietara begira egon gara isilik segundo batzuetan zehar. Zenbait errenkadatan jarritako sarkofago horiek, harriz inguratuta, errespetua ematen dute. Inguruko isiltasunak ere nabarmen laguntzen du baitaratze sentsazio hori sortzen.

Elementu historiko horien inguruan dagoen informazioaz hitz egin du GAUR8k Agredarekin. Arreta ematen du harrizko bi piezako hilobi horiek gainean duten triangulu formako estalkiak. Agredak azaldu du garai bateko gizarte hierarkiaz hitz egiten dutela elementuok. Garai hartan, gizarte maila altuko pertsonak lurperatzen zituzten harrizko sarkofagoetan. Herritar xumeak, aldiz, lurlean egindako habi komunetan lurperatzen zituzten. Harrizko elementu horiek, beraz, lehen datu bat uzten dute datazioaz gain: gizarte maila altuko herritarrak izan ziren haietan lurperatutakoak.

Zehaztu duenez, Argiñeta ez da erakusten dituen elementu guztien jatorrizko kokapena. Gaur egun bertan ikusgai dauden elementuen artean beste auzo batzuetako basilizetatik ekarritako elementuak daude. XIX. mendean jarri ziren San Adriango basilizaren inguruan. Elorrioko orduko parroko Domingo de Retolazak bildu ei zituen bertan auzoetan zeuden hilobiak, gogoratu duenez.

KRISTAU INSKRIPZIO ZAHARRENETAKOAK

Bi piezaz osatutako sarkofago horietako batzuetan inskripzioak daude. Inskripzio horiek Bizkaiko eta ziur asko Euskal Herriko lehen inskripzio kristauak dira, hainbat iturriren arabera. «Jainkoaren izenean, Momus bizitza gorputzean/ 921 aroan (urtea 883) egin zidan/Hemen lo», irakur daiteke latinez. Ondoko batean, «Paterna hil zen, jainkoaren morroi, abuztuko kalenden 17an» ageri da. Gurutzearen ondoan, omega letraren zeinua dago.

Hilobi multzoaren inguruko informazio osatuagoa bilatu dugu Elorrioko Udaleko webgunean. Oiz men-



Argiñetako nekropolia erakusten duen irudi nagusiaren ondoan, lerro hauen alboan, San Adriango basilizako zenbait elementu eta harrizko sarkofagoen atzeko ikuspegi bat.
Monika DEL VALLE | FOKU

diko harrobietatik ateratako kareharriz eginak direla dio, eta sarkofagoen egituran sakontzen du. «Bi zati dituzte: kaxa, pieza bakarrekoa, itxura antropomorfikoa, eta estalkia, triangulu-formako sekziokoa, teilatutxo modukoa. Hainbat dimentsiotakoak dira eta, kasu batzuetan, bi elementuek ez datoz bat».

Ezaugarri horietan sakonduz, batez besteko luzera bi metro ingurukoa dela zehazten du. Neurriak kontuan hartuta, lurperatutako gorpuen altuera irudikatze aukera dagoela dio udal atariak, eta 1,63 eta 1,97 metroren arteko luzerakoak izan zitezkeela. Hutsune antropomorfiko eta bainuontzi formako kanpoaldeko kutxetako batek baino ez dauka apainketa kanpoaldeko perimetroan zehar. Gaur egun oso galduta badago ere, «zerra hortzez beteta» egongo zela nabarmentzen du udal informazioak.

ERREFERENTZIAZKO INGURUNEA

Nekropolia osatzen duten elementuen kopuruagatik, haien antzinatasunagatik eta kontserbazio egoera onagatik EAeko lehen mailako ondare elementu gisa izendatuta dago Argiñetako nekropolia, baina Elorri osoa da monumentu multzoa, Garazi Agredak zehaztu duenez.

Balio historikoari lotuta, gainera, lekuaren esanahia itzal luzekoa da eta izaera hori denboran zehar mantendu da, Garazi Agredak nabarmendu duenez. Ohikoa zen ehorzlekuak baselizen inguruan egitea, baina Goi Erdi Aroko gizarteetan leku erreferentzialak ere baziren espazio horiek, eta denbora luzean gorde dute, hain zuzen, proiektzio hori. Antzinako gizarte haietan bilgune eta babesleku ziren basilizak, baina erabakiak hartzen zituen kontzejua biltzeko tokia ere baziren, kudeaketa egiten zuten kofradien biltokia...

Iraganaz hitz egiten dute elementu askok Argiñetan, baita haritz hostotsu handi horiek ere eta ez dute bakarrik GAUR8ren arreta eskuratu, hedabideeki ko hurrengo hitzordua National Geographic-ekin izango baita uda honetan bertan.



Leire Lareki Sanchez eta Eneko Mendiluze Plaza
Psikopedagogo eta psikologoak

Eneagrama

Norbere burua ezagutze-ko bide asko daude, agian mundu honetako gizakiak adina. Hala ere, badira tresna erabilgarriak barne-bidaian sakontzeko eta eneagrama horietako bat da.

Gizakiok ingurura egokitzeko estrategia ezberdinak jartzen ditugu martxan. Inguruarekiko hartu-emanen nortasuna eraikitzen dugu, biziraupenerako jokabide azkarra. Modu honetan, lehen bizi-urteetan bereganatutako joerak helduaroan zurruntasunez mantentzen dira, askotan disfuncionalak bilakatuta. Eneagramaren bidez bizirauteko ikasi genituen estrategietan kontzientzia jar daiteke eta gure babes sistema modu osasuntsuan onartu. Auto ezagutza prozesua honela labur daiteke eneagramaren bidez:

1. Ez dakit zein den nire eneaitipoa.
2. Identifikatzen naiz eneaitipo batekin.
3. Ulertzen dut zergatik eraiki nuen babes sistema hau.
4. Ikusten dut zein den babes sistema horren eragina gaur egun.
5. Konturatzen naiz beste modu asko egon daitezkeela, nire joera ulertuz eta integratuz.

Era oso laburrean, hauek dira eneaitipo bakoitzaren nondik norakoak.

IZAERA INSTINTIBOA:

1. eneaitipoa. Perfektua izan nahi du. Gauzak hobetzen saiatzen dira, ezer ez delako behar bezain egokia. Epaileak, zuzenak eta hotzak dirudite, bizitza oso serio hartzen dute eta arduratsuak, praktikoak, antolatuak, langileak, zintzoak eta errespetutsuak dira. Justizia oso presente izanik, amorrua dute barne-desoreka indar gisa eta barne-oreka indarra, aldiz, baretasuna.

8. eneaitipoa. Kontrola izan nahi du. Sendoak, erabakigarriak, praktikoak, gorrak, kontrolatzaileak, indartsuak, begirada hotzekoak. Berehala ekintzara segurtasunez pasatzeko joera dute. Lider

naturalak dira, ahula babestu eta justiziaren alde egiten dute. Desorekan oldarkorrak eta bortitzak izan daitezke. Lizunkeria da barne-desoreka indarra eta errugabetasuna, barne-oreka indarra.

9. eneaitipoa. Gatazka ekidin nahi du. Beren buruarekin eta inguruarekin bakean eta harmonian egoteko beharra dute, gatazkak saihestuz, jarrera atsegin, lagunkoi eta adiskidetsua azalduz eta berekoikeriarik gabe ingurunera egokituz. Maiz erabakiak besteen esku uzten dituzte. Batzuetan, tristura eta etsipena azaldu dezakete. Nagikeria da beraien barne-desoreka indarra eta diziplina, barne-oreka indarra.

IZAERA EMOZIOALA:

2. eneaitipoa. Maitasuna behar du. Irudi ona dute beren buruaz, espontaneoak, naturalak eta enpatikoak dira, maitasuna sentitzea zutabe garrantzitsuena baita eta, zentzu honetan, dependentzia-harremanak garatzeko erraztasuna dute. Kanpotik alaiak, eskuzabalak, espontaneoak, askeak, liluragarriak, atseginak eta dibertigarriak agertzen dira. Harrotasuna da beraien barne-desoreka indarra eta umiltasuna, aldiz, beraien oreka indarra.

3. eneaitipoa. Balorazioa behar du. Langileak dira, etengabe helburuak lortzen ahalegintzen dira. Epelak, atseginak, trebeak, lehiakorak eta praktikoak dira. Eraginkorrek izatea gustatzen zaie eta balorazioa jasotzea espero dute; besteek haiez duten irudiari garrantzia ematen diote. Ingurunera egokitzeko gaitasun handia dute. Handiustea da beraien barne-desoreka indarra eta zintzotasuna, beraien oreka indarra.

4. eneaitipoa. Arreta behar du. Nahiz eta bizitzan arrakasta izan, ez dute beren buruaren irudi onik. Mundu emozional aberats, konplexu eta sentikor batean bizi dira. Itxuraz sakonak, sortzaileak, arretatsuak, irudimentsuak eta drama-

tikoak dira. Desberdinak sentitzen dira, bereziak eta bakarrak. Sufritzeko joera dute eta inbidia da beraien barne-desoreka indarra. Neutraltasuna, aldiz, beraien oreka indarra.

IZAERA MENTALA:

5. eneaitipoa. Sentimenduak adierazteko beldurra du. Barnerakoiak eta lotsatiak izaten dira, autonomoak eta independenteak. Pribatutasuna zurrunt mantentzen dute eta bizimodu minimalista garatzea dute gustuko. Kanpoko itxuran atseginak, zuzenak, barnera-koiak eta isilak agertzen dira. Zientzia arlo akademikoak gustuko dituzte eta zuhurtzia da beraien barne-desoreka indarra. Eskuzabaltasuna, beraien barne-oreka indarra.

6. eneaitipoa. Erabakiak hartzeko beldurra du. Konfiantza falta azaltzen dute, kezka eta, erabakitze orduan, zalantza ugari. Bake mentala kentzen dieten antsietate-jarrerak dituzte. Hiru multzo bereizi daitezke: beldurretik ihes egiteko joera dutenak (adeitsuak, lankideak, beroak), beldurrari aurre egiten diotenak (errebeldeak eta oldarkorrak) eta beldurretik defendatzeko beharra dutenak (kontrolatzaileak eta hotzak). Koldarkeria da barne-desoreka indarra eta ausardia, barne-orekarako indarra.

7. eneaitipoa. Sufritzeko beldurra du. Beren bizitzak esperientzia dibertigarri eta atsegingarriak betetako abentura zirrargarria izatea nahi dute. Etorkizunean proiektatzeko joera dute, esperientzia desiratu horiek bizitzeko aukerak adieraziz. Zerbait hobea zain dutela uste dute. Kanpoko itxuran baikor eta positibo agertzen dira; harremanean atseginak, lagunkoiak, alaiak, dibertigarriak, jatorrak, jostalariak, irudimentsuak... izaten dira. Asegabetasuna da beraien barne-desorekarako indarra eta asetasuna, aldiz, orekarako indarra.

Gunetuz sarean diogun bezala: nortasuna taldean osatzen da. •



GUNETUZ
PSIKOLOGO EUSKALDUNEN SAREA
www.gunetuz.ueu.es

{ koaderno } Xabier IZAGA GONZALEZ

Margu lili artean kaka mehe, tirano arrotzen ohiltzeko

Cancionero popular vasco de D. Resurrección M^a de Azkue, director de la Academia de la Lengua Vasca, premiado con el primer premio en concurso abierto por las cuatro diputaciones vascas y dedicado a su amigo D. Ramón de la Sota y Llano” kantutegian, lo-kanten atalean, “Margu lili artean” kanta ageri da. Robles-Arangiztarrek sortutako Aritzak taldeak “Hamar urte” diskoan grabatu zuen 1995ean. Abestiaren bigarren ahapaldia honela hasten da: «Oil, oil erle kuek/ kartxeritik gain kartra».

Iragan igandean Leire Casamajou Elkegaraik Jean-Louis Davanti egin zion elkarrizketa jakingarrira irakurri nuen “Berria” egunkarian. “Matalaz” kantaz eta XVII. mendean Mitikileko erretorearen gidaritzapean Zuberoan izan zen matxinadaz ari zen Ürrüstoi-Larabileko idazlea. Besteak beste, joan den uztaillean “Enbata” aldizkarian idatzi zuena kontatu zuen, Benito Lertxundik famatu zuen kantaren hitzak berak egin zituela, alegia, eta kanta horretako egiazko zuberotarrak, egiazko euskaldunak, ez direla jaikiko tirano arrotzen hiltzeko, ohiltzeko baizik (lau euskal aldundiak ere jaikiko ote dira?). Horiek izan omen ziren Bernard Goihenetxeren azken hitzak eta halaxe idatzi Davantek; ‘hiltzeko’ adierazi nahi izan balu, «ehaiteko» idatziko omen zukeen. Eta Azkueren kantutegiko sehaska-kanta ekarri zidan gogora.

Ohiltü (‘ohildu’) Zuberoan erabiltzen den aditza da, baita Erronkaribarren ere (*oiltu*), edo erabiltzen zen, hango hizkera desagertu baino lehen. Orotariko Euskal Hiztegiaren arabera, Zuberoako eta Erronkaribarreko egileetan dago dokumentatuta XVII. mendetik, XIX.aren amaieratik mendebaldeko zenbait testutan ere ageri da eta XX.ean hegoaldeko egile kultistetan. Bernardo Estornesen “Diccionario español-us-

quera roncalés” hiztegiaren *espantar* sarreran ez da agertzen, baina bai beste batzuetan, hala nola *ahuyentar*, *expulsar* edo *desterrar* sarreretan, ‘uxatu’ zabaldua goarekin eta horren zenbait aldaerarekin batera.

Horixe da Azkueren kantutegiko sehaska-kantako *oil* hitza. Erronkaribarreko kanta horren hitzak, baina, ez dira jatorrizkoak. Jatorrizkoak ez zitzaizkion atseginak iruditu «folkloristari», nonbait: «*La letra original, además de ser chabacana, hiede*». Eta aldatu egin zuen: «*El folklorista [Azkuek], que siempre que extirpa una letra ha creído verse obligado a sustituirla con otra del mismo dialecto o variedad dialectal, trazó en puro y difícil roncalés este poemita, procurando dar al acompañamiento de la melodía este mismo carácter de rareza y acritud del dialecto en cuestión*». Bide ba-

Erronkaribarreko kantaren hitzak ez ziren egokiak abade lekeitiarraren ustez eta tranpa txiki erraldoi bat egin zuen.

«Abadejo xatan dion apezak eginen du kaka me» esaldiak asalatu bide zuen

tez esanda, bistan da ondo ezagutzen zuela euskalkia eta bertsogile trebea zela.

Edonola ere, euskalari handiaren kantutegian jatorrizko hitzak ere irakurgai daude, Mariano Mendigatxa bidankoztarraren ahotik jasota: «Botto ninak bolunte/ loak artu nai noke/ suge utsuak boluntate;/ abadejo xatan dion apezak/ eginen du kaka me./ Boto ninak bolunte,/ loak artu nai noke».

Hitz horiek ez ziren egokiak abade lekeitiarraren ustez eta tranpa txiki erraldoi bat egin zuen. *Abadejo xatan dion apezak eginen du kaka me* esaldiak asalatu bide zuen bereziki. Bakailaoa jan osteko esperientzia deserosoren bat gogoraziko ote zion? •



Txaro Tomasena urnietarra, Donostiako Kontxako hondartzan. Jon URBE | FOKU

infraganti **TXARO TOMASENA**

Hirurogei urte inguru zituela ikasi zuen serio igerian eta 69 urterekin, bizikletan ibiltzen. Txaro Tomasenarentzat (Urnieta, 1946), osasunak laguntzen duen bitartean, ez dago mugarik. Kirolak osasuna eta zoriona ekartzen dizkio. Gibraltarko itsasartea igerian zeharkatu dutenetan adinez nagusiena da Tomasena. 77 urterekin lortu du balentria.

Txaro Tomasena 1946ko martxoaren 13an jaio zen. Urnietarra da eta umetan desiraz eta grinaz begiratzen zion Adarramendiri. «Hamabi urte nituela aitak ez zidan uzten Adarramendira joaten. Anaiei uzten zien, baina ni bere 'nes-

katoa' nintzen eta desberdin zaintzen ninduen». Lau anai-arrebetan neska bakarra zen Txaro eta aitak bere 'panpina' puskatzeko beldurra izango zuen, akaso.

Duela aste batzuk bere nes-katoak Gibraltarko itsasartea igerian zeharkatu zuen. Balentria hori egin dutenen artean adinez nagusiena da Txaro, 77

urte dituela lortu baitu Estatu espainoleko Tarifa irlatik Marokoko Dalia kai-muturrera dauden 16,1 kilometroak igerian egitea. Sei ordu eta 23 minutu behar izan ditu. Eta ez da kirol arloan lortu duen erronka bakarra, azken hogeitaurtean makina bat kirol probetan nabarmendu baita. Igeriketan eta triatloian aritzen da.

Beti izan da itsasozalea. «Hondartzara joan, pixka bat uretan ibili, gabarroraino joan akaso... baina nire kasa aritzen nintzen, igerian oso ondo jakin gabe. 55 urte nituela auto istripua izan nuen. Atzetik kolpe bat jaso nuen eta min hartu nuen bizkarrezurrean. Sendagileak igeri egitea aholkatu zidan. Eta horrela hasi nintzen Hernaniko kiroldegian monitorea baten laguntzarekin, asteazken bizpahiru aldiz. Itsasoa asko gustatzen zait eta banekien igerilari askok egiten zutela Getaria-Zarautz proba. Astigarragako nire lagun Lurdes Irizar eta biok animatu ginen proba hori egitera. 58 urte neuzkan. Biok lortu genuen amaitzea eta horrek motibazioa eman zigun itsasoan jarraitzeko. Behin, 65 urte nituela, Donostian Pasealeku Berriko itsas zeharkaldia egiten ari nintzela, sustoa izan nuen. Irla paretik helmugara bitartean ezker-eskuin ibili nintzen eta espero baino hogeitau minutu beranduago iritsi nintzen. Senarra zain neukan hondartzan, oso larrituta. Orduan pentsatu nuen horrelako disgusturik ezin nuela eman eta bi bide neuzkala: edo itsasoan ibiltzeari utzi edo taxuz hasi itsasoan ibiltzen».

Bistan da bigarren bidea hartu zuela. Itsasoan ibiltzeko entrenatzaile batekin hasi zen 65 urte zituela. «Nik igerian egin nahi dut fundamentuz eta ondo, bai itsasoan bai igerilekuan. Horixe esan nion entrenatzaileari. Hasi ginen pixkanaka eta konturatu ginen garrantzitsua zela erronkak jartzea, helburuak. Eta horrela hasi nintzen prestatzen Espainiako Txapelketarako. Hainbeste gustatzen zait igeri egitea, non denetarik egiten dudana; itsasoan, igerileku mo-

tzean eta luzean, abiadura probak, triatloia... Nik jende guztiari esaten diot: kirola osasuna da, gorputzarentzat eta buruarentzat. Kirola maite egin behar duzu eta zure buruari exijitu egin behar diozu, gauzak ahalik eta txukunen egiteko».

BIDE LUZEA GIBALTARRERA

Gibaltarko erronka ez da egun batetik besterako proiektua izan. Bidea luzea izan da eta trabaz betea. 2014. urtean proposatu zioten. «2014an Montrealera joan nintzen, Munduko Igeriketa master Txapelketara. Master kategorian 20 urtetik gorako edonork parte har dezake exijitzen dituzten gutxieneko denborak egiaztatuz gero. Hainbat proba egin nituen eta ondo atera zitzaizkidan. Gure klubeko igerilari kuadrilla batek Gibaltarko itsasartea egina zuen 2013. urtean eta Montrealetik bueltatu nintzenean nik ere egin behar nuela esan zidaten, animatzeko. Erronka handiegia iruditzen zitzaidan. 2014ko abuztuaren 10ean proposatu zidaten, San Lorenzo egunez. Gure aita zenaren eguna zen eta pentsatu nuen seinale bat zela. Hilak dauden arren, asko hitz egiten dut aitarekin eta amarekin eta egun hartan halaxe esan nion aitari: 'Badakizu? Saiatu egingo naiz erronka hori egiten'».

Tomasenak ez zuen kirolik egiten ez umetan ez gaztetan. Gaizki ikusia zegoen emakumeek kirola egitea. «Nik betidanik izan dut kirolerako grina, baina ezin izan dut. Bizitza osoa eman dut ikasten eta lanean. 17 urte bete eta segidan lanera joan nintzen, goiz eta arratsalde, ikasten jarraitzeko eta familiarentzako sosak irabazteko».

Beraz, bere erronken jopuntuan jarri zuen Gibaltarko itsasartea. «2015eko urtarrilaren 6an eman nuen itsasartea igerian zeharkatzeko eman behar den diru seinalea. Zerrenda batean jartzen zaituzte eta pare bat urtez zain egon behar duzu, zure txanda noiz iritsiko. 2017ko abuzturako eman zidaten txanda».

2017ko apirilean Zeelanda Berrira joan zen, Aucklandera, "World Master Games" joko olinpikoetara. «Itsasoa egin nuen, igerilekua, triatloia... primeran. Baina sekulako katarroa harrapatu nuen eta sei hilabetean ezin izan nuen hura gainetik kendu. Gibaltarko antolakuntzara deitu nuen ezin nuela parte hartu esanez. Zerrendan jarri ninduten. Sen-

datu nintzen, hasi nintzen berriaz entrenatzen eta 2019an bizikletan istripua izan nuen, triatloian. Bazirudien dena nire kontra zegoela Gibaltarko erronka ez nezan egin».

Bere buruari asko exijitzen dio. Bide horretan, Kansaiko (Japonia) Joko Olinpikoetan jarri zuen begirada. Bertan distantzia luzeko triatloi bat egin nahi zuen eta entrenamenduaren parte zen inguruko triatloi probetan parte hartzea. Honaino iritsita, datu garrantzitsu bat: Txaro Tomasena 69 urte zituela ikasi zuen bizikletan ibiltzen, hain justu triatloietan parte hartu ahal izateko.

Gatozen Kansai begitan hartuta zuen garaira. 2019a zen eta Donostiako herri triatloi

batean parte hartzen ari zen. «Sekulako istripua izan nuen bizikletarekin. Hor pentsatu nuen kito, bukatu zirela nire Joko Olinpikoak eta nire Gibaltarko itsasarteko erronka».

2019ko istripua latza izan zen eta ondorioak utzi zizkion sorbaldan eta belaunean. Hango eta hemengo medikuekin ibili zen eta errehabilitazioan ere saio dezente egin zituen. «Gasteizen daude Mikel Sanchez medikua eta bere taldea. Eliteko kirolariak artatzen dituzte eta hara deitu nuen. Errehabilitazioa eta gero zerbait hobetu nuen, baina ez nengoan ehuneko ehuneko eta nik hori behar nuen, erabat sendatuta egotea nire erronkekin jarraitzeko. Azke-

Tomasena pozik dago Gibaltarko erronka betetzea lortu duelako. Hurrengo dagoeneko buruan dauka.
Jon URBE | FOKU



nean ebakuntza garrantzitsu bat egin zidaten. Hor lortu zuten nire mugikortasuna erabat berreskuratzea».

2020ko martxoaren 2an izan zen Txaro Tomasenaren ebakuntza eta martxoaren 14an hasi zen Covidak eragin-dako itxialdia. «Errehabilitazio guztia etxean egin nuen bideoen eta whatsapp mezuen bidez». Urte horretako abuztuan bertan Pontevedrara joan zen triatloi bat egitera. «Sentsazio oso onak izan nituen, besoak eta belaunak primeran erantzun zidaten. Sekulako poza sentitu nuen».

GAITASUNEN %100ERA HURBILDU

Bidelagun duen senarra gorai-patzen du behin eta berriz. «Senarra baserrian sortua da eta oso mendizalea. Berak erakutsi zidan mendia eta natura maitatzen. Urnietako Adarratik hasi ginen eta Himalaian bukatu genuen. Osasunak laguntzen digun bitartean, guretzat ez dago mugarik. Esaten da pertsona gehienek beren bizitzan zehar beren gaitasunen %20, 30, 40 inguru lantzen dituztela. Nik hori buruan daukat eta gustatzen zait gorputzari eta buruari astindua eman eta %100etik ahalik eta gehien gerturatzea. Horregatik jartzen dizkiot nire buruari erronka handi horiek».

Gibraltarko itsasartea igerian zeharkatu du 77 urterekin. Erronka bete du eta sentitu du bai burua bai gorputza beren gaitasunen %100era eraman dituela. «Nire indar guztia eman dut. Nire bizitzako probarik zailena izan da, oso-oso gogorra».

Entrenamendu latzak egin ditu Irati Samaniego bere entrenatzailearen aginduetara. Igerilekuan eta itsasoan aritu da egunero eta ariketa fisikoak



Goiko irudian, urnietarra itsasartea igerian zeharkatzen. Sei ordu eta 23 minutu behar izan zituen. GAUR8

ere egin ditu. Bederatzi hilabetez aritu da astean zazpi egunetatik seitan entrenatzen. «Sekretua da egun batez atsedeen hartzea, bai gorputzak bai buruak behar dute. Baina gaitzatzeko sei egunetan dena eman dut».

Tartean sortu dira zalantzak. «Otsailean entrenamenduak oso gogor jartzen hasi ziren. Nik normalean egunean 3.000 metro egiten ditut igerian eta otsailean egunean 5.000 metro egiten ari nintzen. Erronka gaitzatzeko ari zitzaidala sentitzen hasi nintzen eta hamar egunetarako Kanarietara joan nintzen, burua bere lekuan jartzera. Fuerteventurako punta batetik Lanzarote ikusten da. Justu igerian 15 kilometroko distantzia da eta badago hori zeharkatzen duen proba bat. Egunero joaten nintzen punta horretara eta beste aldeira begira jartzen nintzen. 'Ho-

ri egin behar duzu', esaten nion nire buruari».

Aldapa gora jartzen ari zitzaien kontua. Baina orduan bi gauza jarri zituen lehen leerroan: bere entrenatzaileak berarengan zeukan konfiantza osoa eta berak erronka hori burutzeko zeukan gogo bizia. Aurrera.

Dena bideratuta zegoela zirudienean, beste traba bat, azkena eta inori kontatu ez diena. «Tarifara jaitsi baino lau egun lehenago Getaria-Zarautz igerian egitera joan nintzen. Entrenatzaileak entrenamendu hori jarri zidan. Hiru kilometro dira eta ordubetean egin behar nituen. Joan nintzen, egin nuen eta senarrarekin autoan bueltatu nintzen Urnietara. Etxean, neoprenoa kentzerakoan oreka galdu eta sekulako kolpea hartu nuen. Larrialdietara joan nintzen. Besoan sekulako kolpea neukan. Erradiografia batzuk egin zizkidaten eta esan zidaten bazirudiela ez neukala ezer puskatuta. Ondorengo egunean Gasteizera joan nintzen laguntza eske. Denetatik egin zidaten, azterketa oso sakon bat egin zidaten eta esan zidaten ez nuela ezer puskatuta. Kolpea latza, baina puskatuta ez. Sekulako mina nuen, baina ezer puskatuta ez neukanez, aurrera egitea erabaki nuen.

Itsasartea zeharkatu dut esku-muturreko eta besoko minez. Gasteizko medikuak harrituta zeuden nirekin. Baina nik garbi neukan egin egin behar nuela». Trabak, beraz, asko eta askotarikoak. Baina Tomasenaren hitzetan, «gaitzatzeko modukoak».

Gibraltarko itsasartea igerian zeharkatzea ez da samurra izan. Korrante asko eta gogorak daude eta Tomasena aritu zen egunean bereziki aldrebes egon zen itsasoa. «Lehen orduan, dena eman nuen arren, kilometro eta erdi bakarrik egitea lortu nuen. Ni konturatu nintzen ez nintzela ondo ari, ura oso gogorra zegoela. Gero, korrantea alde izan nuenean, sekulako abia-dan joan nintzen. Horrela iritsi nintzen bidearen erdira edo. Bitartean nire entrenatzailea ondoan zihoan, jatekoa eta edatekoa ematen tarteka. Erdian nengoela, antolakuntzako bati entzun nion esaten hasiera oso gogorra izan nuela eta zaila zegoela. Are eta grina handiagoaz jarraitu nuen orduan. Azken parte horretan haizea gogor altxatu zen, 8-10 korapiloko abiadan. Pentsa, 10 korapilotik gora debekatuta dago itsasoan igeri egitea. Muga-mugan ibili nintzen, haizea kontra denbora luzean. Oso gogorra izan zen. Izokin bat bezala sentitu nintzen batzuetan eta beste batzuetan kortxo bat bezala. Baldintza gogorretan egin nuen, baina bukatu nuen. Eta aitari esan nion, 'aita, bukatu dut'».

Dagoeneko hurrengo erronka buruan dauka, 2024ko urrian. «Dena egin daiteke eta inoiz ez da berandu. Zure gorputza eta burua maitatu eta zaindu behar dituzu».

«Senarra eta biok Urnietako Adarramendin hasi ginen mendian eta Himalaian amaitu genuen. Osasunak laguntzen digun bitartean, guretzat ez dago mugarik»

Gibraltarko itsasartea igerian zeharkatzeko bederatzi hilabete eman ditu gogor entrenatzen, zazpi egunetatik seitan, egunero ordu luzez igerian eta ariketa fisikoak egiten

Gizakiak gizatasuna galdu du

Miren AZKARATE
BADIOLA

Higuina, tristura eta haserrea eragiten dizkirate, azkenaldian, migratzaileen aurkako erasoek eta irakurtzen ditudan albisteek. Ez dakit zehazki zein ordenatan, baina asko kezkatzen nauen zerbait da. Gehiago egongo dira, baina lerroburu hauek azken hamar egunetan irakurritakoak dira: 41 pertsona hil dira Lampedusa-ko uretan, dozenaka familia egarriz hil dira Tunisiako desertuan, kartzelatsasontzi bat eraiki dute Erresuma Batuan, Texasko Rio Grande ibaian zerra flotagarriak jarri dituzte.

Zein baino zein lazgarriagoa, kontuan izanik pertsona batzuen bizitzaz

(askotan, galdua) ari garela hizketan eta beste pertsona batzuek eragindako sufrimenduaz, hain zuzen ere. Zer bihurtu da gizakia horrelakoak burutik pasatu eta ideia horiek burura eramateko? Eta zer bihurtu gara gainontzekoak egunero hau begien bistan ikusi eta ezer gertatuko ez balitz bezala gure bizitzekin aurrera jarraitzen badugu?

Badago telebistan serie bat hasieran hau dioena: «Gizakia da plazerez torturatu eta hiltzen duen animalia bakarra». Egia galanta!

Bizitza hobe baten bila doaz beste herrialdeetara, ez besterik. Eta zerekin topatzen dira? Haiek baino gehiago di-

rela uste duten haien espezie bereko batzuekin, eta haiek akabatu nahi dituzte ez direlako leku eta baldintza berberetan jaino. Nor da zein erabakitze "bere" herrialdean nor sartzen den eta nola, eta ez bazaio gustatzen ez uzteko sartzen eta are larriagoa, hiltzen utzi edo hiltzen laguntzeko?

Zergatik onartzen dugu, adibidez, goi mailako kirolean atzerritar bat eta ez herrialde bereko iturgin bat? Zergatik irekitzen diogu atea Ukrainako gerratik ihesi datorrenari eta ez Nigeriako gerratik datorrenari?

Aspaldi galdu nuen sinesmena humanitatean, baina gizakiak bere gizatasuna galdu duela ohartu naiz. •

Delirioa

Amagoia MUJIKATELLERIA

Psikopatologian, delirioa konbikzio sakon batekin bizi den sinesmen gisa definitzen da, nahiz eta ebidentziak kontrakoak erakusten duen.

Duela gutxi Mario Biondo telebista kameraren inguruko dokumentala ikusi dut. Duela hamar urte hil zen, ebidentzia guztien arabera bere buruz beste eginda. Bada, bere familiak ez du sinesten hori gertatu zenik eta hamar urte daramatza ustezko hilketa-aren hipotesia eraikiz eta puztuz. Ez dakit zer gertatu zen, baina ematen du familiaren mina delirio bihurtu dela. Eta delirioak mina areagotu besterik ez du egiten.

Parean tokatu da Thailandiako hilketare. Ez du azalpen handirik behar. Telebista espainolak piztu besterik ez dago detaileak ezagutzeko –zer demontre egin behar ote zuten abuztuko arratsalde sapa eta geldoetan Thailandiako gertatu ez balitz? Zenbat telebista ordu bete ote dituzte dagoeneko?–.

Harrituta nago, baita amorratuta ere. Daniel Sancho Edwin Arrieta akabatu eta bere gorpua txikitu du. Gorpua ezkututzen saiatu da eta hilketa aitortu du. Bada, telebista espainoletan delirioa elikatzen ari dira egunero. Ukazioa, zalantza, nahasmena eta usteak, kiloka eta orduka. Martxa hone-

tan hiltzaileak berak zalantza egingo du gertatu denaz.

Amoragarria iruditzen zait ebidentzia; gizon gazte ilehori ustez arrakastatsu batek –sare sozialetan arrakasta distiratsua saltzen duenak– zirujau kolonbiar beltzaran homosexual bat akabatu du. Eta badirudi horrek sekulako zirkuitulaburra eragin duela askoren buruan. Aldrebes izango balitz, lasaia-go lo egingo lukete.

Errealitateak zure estereotipo eta sinesmenak astindu eta hankaz gora jartzen dituenean, bi aukera daude: uste horiek zerren gainean eraikiak dauden hausnartu edo gertatu dena ukatu eta delirioan itotzea. •



Olatz ARBELAITZ GALLEGO

UPV/EHUko Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikertzailea

Datu-zentroak: eguneroko bizitzako ohituren atzean dagoen azpiegitura

Gaur egun ezin dugu gure bizitza gailu elektronikoko, Internet, eta haiek ematen diguten zerbitzurik gabe imajinatu. Egunerokotasunean askok erabiltzen ditugu eskura ditugun gailuetan posta elektronikoa, sare sozialak (Wahtsapp, Telegram, Twitter, Instagram...), bideo-transmisioa edo streaming plataformak (Netflix, HBO, Youtube...), oinarrian informatika zientifikoa duten aplikazioak (fisika, kimika, ingurumen... alorretako eredu baliatzen direnak) eta abar eta abar. Erabilera hori egiten dugunean elkarrekin-tzarako erabiltzen dugun gailua soilik ikusten dugu guk: gure telefono mugikorra, tableta edo ordenagailua. Baina hori ez da nahikoa zerbitzu horiek martxan egon daitezen. Aplikazio horiek guztiek datu-zentroak dituzte atzean. Beste esparru batera jotzen dugunean ere, zerbait –adibidez, argazkiak– hodeian gorde dugula esaten dugunean, horietako datu-zentro batean dagoela esaten ari gara finean.

Datu-zentro bat, modu sinplean azalduta, erakundeek beren aplikazio eta datuak gordetzeko erabiltzen duten instalazio fisikoa da. Oro har, konputaziorako eta biltegitratzeko baliabide-sare bat izan ohi da, aplikazio eta datu partekatuak metatu eta igortzeko aukera ematen duena. Datu-zentro baten diseinuaren funtsezko osagaiak biltegitratze-sistemak, zerbitzariak, aplikazio-kontrolatzaileak, bideratzaileak, etengailuak eta suebakiak izan ohi dira. Izan ere, negozioarako kritikoak diren datuak eta aplikazioak biltegitratzen eta administratzen dituztenez, segurtasuna funtsezkoa da haien diseinuan. Baina aipatutakoez gain, datu-zentroek azpiegitura ugari ere behar dute hardware eta softwareari laguntzeko. Horien artean daude energia-azpisistemak, etengabeko elikadura-iturriak (UPS), badaezpada-k sorgailuak, aireztapena, hozteko sistemak, suteak ekiditeko sistemak eta kanpoko sareetarako konexioak.

Errendimendu eta segurtasun helburuak lortu ahal izateko, datu-zentroetan erabiltzen diren konputagailuak bereziak izan ohi dira. Prozesadore asko behar da elkarlanean, pa-

raleloan, aplikazioetan emaitza txukunak denbora gutxian lortzeko. Gehienetan, horrelako lanetarako, CPU (Central Processing Unit) arruntez gain, GPUak (Graphics Processing Unit) erabiltzen dira. GPUek paraleloan lan egiteko gaitasuna duten prozesadore sinple asko dituzte, eta datu-zentroetan, aldi berean, milaka GPU egon daitezke martxan. Ondorioz, milioika transistore arituko dira lanean paraleloan eta horrek energia kontsumo izugarria dakar. Kontsumitzen den elektrizitate hori bero bihurtzen da eta bero hori gunetik ateratzeko, elektrizitatearekin funtzionatzen duten hozte-sistemak erabiltzen dira; kontsumoa izugarria da, beraz. Esaterako, mundu osoko datu-zentroek 2019an, gutxi gorabehera, munduko elektrizitate-hornikuntzaren %3 kontsumitu zuten eta 2025erako erabilera hori %20ra haztea espero da. Energia hori, gainera, gehienetan ez da garbia izaten. Izan ere, enpresa hornitzaile guztien artean, Switch etxea da bakarra gardentasun energetikoan, energia berriztagarrien konpromisoan eta kokapen-politikan oinarrituta Greenpeacek ematen duen energia garbiaren indizean %100 duena. Enpresa hori da mundu mailan datu-zentro handien zerrendan hirugarren postuan (680.000 metro karratu inguru hartzen ditu) dagoen Citadel Campus-en arduraduna.

Amaitzeko, zenbakitxo batzuk ematearren, horri buruzko informazioa duten 110 herrialdeetan 2021eko urtarrilean 8.000 datu-zentro inguru zeuden. Banaketa geografikoa ez da uniforme, noski: Ameriketako Estatu Batuetan dau-

de %33 eta gehien dituzten hurrengo bi herrialdeak, Alemania eta Erresuma Batua ez dira %6ra iristen. Datu-zentroen hazkundera gaur egungo joera sozioekonomikoen ondorioa da. Alde batetik, urruneko lanaren eta negozioak digitalizatzearen hazkundera daude, baina, bestetik, guk guztiok egunero egiten dugun datu-erabilera intentsiborako teknologiak. Gauzen Internet eta Internet bidezko telebista, adibidez, txertatu izanak ere eragin handia du horretan. •



Datu-zentroen hazkundera garrantzitsua gertatzen ari da. GAUR8

BEHATXULO [] TIK

Juantxo EGAÑA



PELLO LOPEZ HERNANDEZ. KUTXATEKA

MARIJAIA 1997AN, PELLO LOPEZEK JASOA

Pello Lopez Hernandez donostiarrak 13 urte zituela atera zituen lehen argazkiak, aitzak oparitutako Kodak argazki kamera batekin. Irungo Chocolates Elgorriaga fabrikak bezeroei oparitzen zien kamera hori bere promozioetan. Zaletasunaren lehen garaia igaro ondoren, eta modu autodidaktan, bete-betean sartu zen argazkigintzaren munduan. 22 urterekin argazkilari profesional gisa hasi zen lanean aireko argazkigintzan aritzen zen "Paisajes Españoles" enpresarentzat. Diapositiba eta negatibo formatuko 150.000 irudi inguru egin zituen 17 urteko lanean. Bertako jai eta tradizioei ere egin zien argazkia. Euskal kulturaren munduko pertsonaia ospetsuenetako batzuk ere harentzat jarri ziren kamera aurrean. Hegazkin istripuan hil zen Pirinioetan, Anayet tontorretik gertu argazkiak egiten ari zela: 39 urte zituen. Artikuluak erakusten duen irudia Bilboko Aste Nagusian egin zuen 1997an, Unai Iturriaga bertsolaria pregoilari izan zen urtean. Bilboko udaletxeko eskaileretan egindako argazkian Marijaia agertzen da, Mari Puri Herrero artista bilbotarrak sortutako pertsonaia.

**Lurralde
berrietara
goaz**

bidaiari

Hilabetero zure kioskoan **naiz:** en bidaiari aldizkaria euskaraz

